



Bufandak eskuz egiteko tailerra ostegun eta ostiral honetan, arratsaldeko 18:00etatik aurrera

“Kaleratzerik gabeko udalerria” izendatu dute Andoain

Stop Desahucios elkarteak sustatu duen mozioak Udal ordezkariak duten alderdi guztien oniritzia eskuratu zuen irailaren 24an egin zen batzarraldian.

Hamar puntuko mozioa onartu zuten aurreko ostegunean, eta lehenengoan Andoain kaleratzerik gabeko herri gisa deklaratu da. Jokabide aktiboa izango du etxegabetzeak saihesteko orduan, “udaletxe honek beharrezko diren baliabide eta neurri guztiak erabiliko ditu lehen etxebizitzako kaleratze eta ir-



Mozioa Stop Desahucios elkarteak aurkeztu zuen, aho batez onartu zena.

tenarazteak geldiarazteko eta, behar izanez gero, bizileku bat izateko aukera bermatzeko”.

Kasu horietan herrikideen eta finantza erakundeekin egon daitezkeen gatazken aurrean,

Andoaingo Udalak finantza erakundearekin bitartekotza lana egingo du etxegabetzea geldiarazteko

“Udalak kaleratze edo irtenarazte baten abisuaren aurrean, finantza edo administrazio erakundearekin bitartekotza lana egingo du etxegabetzea geldiarazteko”.

Mozioa Andoaingo Kalera-
tzeak Stop Desahucios elkar-
teak aurkeztu zuen eta bozketan alderdi guztien aldeko botoa eskuratu zuen. Hurrenez hurren, EH Bildu, PSE-EE, EAJ-PNV, Irabazi eta Ganemos alderdiena.

[ANDOAIN, 2. ORRIALDEA]

Ospakizun gehiago Urnietan



Igande iluntzera arte musika, dantza edota sagardo eta txekor jatea San Juan plazan.

[GEHIGARRI BEREZIA]

Gartxot Arregiren erakusketa



Andoaingo artistak erakusketa berria zabalduko du urriaren 9an. Iluntzeko 19:00etan izango da irekiera ekitaldia. Azaroaren 14ra bitarte zabalik izango da, ohi-ko ordutegian.

[AGENDA, 8. ORRIALDEA]

Auzoz auzoko bilera sorta Andoainen



Gobernu taldeak herritarrekin batera aztertu eta garatu nahi ditu epe labur eta erdira hartu nahi dituen hainbat erabaki. Denetara, 50 neurri dira alor ezberdinei dagozkienak: azpiegiturak, ingurugiroa, hondakinak, ekonomia, kultura, kirola, euskara, bizikidetzak,... “Agiri bizi bat da, momentuoro eta legegintzaldiak irauten duen bitartean, elkarlanaren eraginez, ekarpenak jaso edo aldaketak

jasan ditzakeena”, adierazi dute. Aurreko agintaldian bezala, “Parte hartze hariak lotuz” izeneko bilera sorta iragarri dute.

BILERA SORTA DATOZEN BI ASTEETAN

Urriak 6, asteartea

Zumea, erdigunea, Olagain 18:30. Bastero.

Urriak 7, asteazkena

Bazkardo, Kaletxiki, A.Kalonge 18:30. Berrozpe ikastetxea.

Urriak 8, osteguna

Goiko zonaldea, La Salle, Plazaola 18:30. Urigain.

Urriak 13, asteartea

Karrika-Etxeberrieta 18:30. Karrika elkarteak.

Urriak 14, asteazkena

Sorabilla, Bordaberri 18:30. Sorabillako auzo elkarteak.

Urriak 15, osteguna

Landa-gunea, Goiburu, Buruntza, Leizotz 18:30. Udaletxeko pleno aretoa.

[ANDOAIN, 5. ORRIALDEA]

Justo Egaña Urnietar Prestu 2015



Egaña, atzean berak sortutako Txanbolin txistulari taldea duela.

Urnietarren omenaldia jaso zuen Iñistor jaian, aurreko igandean.

Gaztetandik urnietartu zen, 1969an Azkoititik iritsi orduko herria suspertzearen hamaika lanetan jardun zuena. Iñistorrak merezimendu ugari bildu ditu, hura omentzeko: “zure ibilbide luze eta oparo horrek Urnietan arrasto nabarmena utzi du, zenbaitetan ez dena begiz jo eta berehalaxe ikusiko, zu, Justo, ez

zarelaiko nabarmenzalea, bai, aitzitik, lana egin ondoren isil-isilik ixkin egiten duen horietakoa. Baina urteetan atzera begiratzuz, urnietarrok arrasto hori ikusten dugu eta ez dugu ahazten hori izan zarela beti, trukean ezer gutxi eskatuta, zure aldetik guttia emateko prest. Eta urnietarrok eskuzabaltasun hori estimatu egiten dizugu, eta lan bikain hori eskertu urnietar zarela aitortuz, urnietar baina Urnietar Prestu!”.

[GEHIGARRI BEREZIA]

Karlos Garciari elkartasuna

Karlosen lagunak ekimena Erroman preso dagoen andoaindarraren baldintzaz gabeko askatasunaren alde lan egiten ari da. Andoaingo Udaleko osoko bilkuran mozioa aurkeztu zuten, aurrera atera zena. Udalak haren oinarritzko eskubideak errespetatzea eskatu du, eta Karlos eta bere sendiari elkartasuna adierazi dio.

[ANDOAIN, 3. ORRIALDEA]

ANDOAIN KALERATZEAK STOP DESAHUCIOS PLATAFORMAREN PROPOSAMENA AURRERA ATERA DA

Andoain etxegabetzerik gabeko herria da

Andoainen ekimen beteko elkarte da Kaleratzeak Stop Desahucios. Bideo kanala sortu dute maileguei buruzko azalpen eta xehetasun ugari eskainiz. Azken hilabeteotan egindako lanak fruituak

eman ditu, eta Udal ordezkari guztien oniritziarekin euren mozioa aurrera ateratzea lortu dute. Etxegabetzeek salbu dagoen herria da Andoain, aurreko ostegunean onartutakoaren arabera.

MOZIOA BERE OSOTASUNEAN

Andoainen, 2015eko Irailaren 15ean

Giza eskubideei buruzko nazioarteko hitzarmen nagusiek zein Espainiako Konstituzioak etxebizitza eskubidea politika sozial eta ekonomikoaren gida-oinarri gisa arautzen dute. Hortaz, eskubide honen sustapenak materia honen gainean eskumenak dituzten botere publiko guztien jarduera positiboa eskatzen du, hauen artean Tokiko Administrazioarena ere.

Egungo krisi ekonomikoaren ondorio larrietako bat familia askok euren ohiko etxebizitzaren mailegu hipotekarioarioaren kuotak edo alokairuaren errentak ordaintzeko bizi duten ezintasuna da. Egoera honek, etxebizitzaren galera ez ezik, langabeziak eragindako gainontzeko ondorio tamalgariak ere dakartza kasu askotan berarekin.

Tokiko Administrazioek ezin dute honen aurrean geldirik egon. Hiritarroi babesa eskaini eta etxebizitza eskubidea modu eraginkorrean bermatzeko beharrezkoak diren jarduerak burutu behar dituzte. Kasu askotan, gainera, botere publikoek finantza erakundeek eta hiritarren harremanetan gero eta nabarmenagoa den desoreka berdintzeko lan egin beharko dute, halaber.

Horregatik, udalek ohiko etxebizitza galtzeko arriskuan dauden familiak babesteko programak abian jarri beharko dituzte, aholkularitza eta bitartekaritza indartuz eta, betiere, Andoain Kaleratzeak Stop Desahucios bezalako plataformekin elkarlanean.

Udalek, herritarrongandik gertuen dauden administrazioak direlako eta euren arazo, behar eta eskakizunak ezagutzen dituztelako, langabeziak



Irailako Udal batzaraldian mozioa onartu zen alderdi politiko guztien oniritziarekin.

“Egungo krisiaren ondorio larrietako bat familia askok euren ohiko etxebizitzaren maileguaren kuotak edo alokairuaren errentak ordaintzeko bizi duten ezintasuna da”

estututa edo eurek sortu ez duten krisi ekonomikoak ordainezinak bilakatu dituen hipoteki aurre egin ezin dietelako, egoera kezagarrian bizi diren milaka familien egoera zuzentzeko betebeharra dute.

HAMAR PUNTUKO MOZIOA

Honegatik guztiagatik, eta udal honetan ordezkariak duten alderdi politiko eta hauteskunde-koalizioek sinatu duten kaleratzeen, pobrezia- eta desberdintasun sozialen kontrako dekalogoaren hamargarren puntua bete dadin nahi dugulako, **Andoain Kaleratzeak Stop Desahucios** plataformak ondorengo mozioa aurkezten du osoko bilkuran eztabaidatua eta onartua izan dadin.

1. Udalak “Kaleratzerik Gabeko Herria” deklaratzeko udalerrira.
2. Udalak beharrezko diren baliabide eta neurri guztiak erabiliko ditu lehen etxebizitzako kaleratze eta irtenarazteak geldiarazteko eta, behar izanez gero, bizileku bat izateko aukera bermatzeko.
3. Udalak etxegabetzeak saihesteko jarduerak guztiak koordinatuko dituen pertsona edo organismo bat izendatuko du, betiere Andoain Kaleratzeak Stop Desahucioekin eta etxebizitza duin baten eskubidearen alde lan egiten duten gainontzeko elkarteekin lankidetzan jardunez.
4. Udalak udalerrira honetan jarduten duten finantza erakundeengana joko du fede oneko zordunen kaleratzeak geldiaraz ditzatela eskatzeko, jabetzan dituzten etxebizitza hutsen errolda galdatzeko eta hutsik dauden etxebizitza hauek alokairu sozialeko programa publikoaren zerbitzura jar ditzaten

“Udalek ohiko etxebizitza galtzeko arriskuan dauden familiak babesteko programak abian jarri beharko dituzte, aholkularitza eta bitartekaritza indartuz”

5. Udalak, kaleratze edo irtenarazte baten abisuaren aurrean, finantza edo administrazio erakundearekin bitartekotza egingo du etxegabetzea geldiarazteko eta, behar izanez gero, irtenaraztean udaltzaingoak komisio judizialari laguntza eman diezaioten ekidingo du, kaltetutako pertsonak bizi duen egoeraren larritasuna aztertuz eta konponbide justu eta egoki bat bilatuz. Etxegabetzea saihestu ezin izan denean, udaletxeak beharrezko neu-

rriak hartuko ditu kaltetutako pertsonen arrazoizko prezioan alokairu sozialeko erregimenean berriz ostatu emateko.

6. Udalak kaleratzea edo irtenaraztea ekar dezaketen kasu guztien berri eman diezaioten galdegingo die epaitegi eskudunei, bazterketa arriskuan dauden kolektibo sozialek identifikatu, zerbitzu sozialek euren txostena eman eta kolektibo hauei bizileku bat eskaini ahal izateko.
7. Udalak, Alokabideak kudeatzen duen Etxebizitza Publikoen Parkeari dagokionean, Lakuako gobernuari beharrezkoak diren erabaki eta modifikazio legalak burutu ditzan exijitzen dio, Gasteizko Legebiltzarra pasatzen den 2014ko apirilaren zazpian etxebizitza publikoen inklinoen buruz hartutako akordioa betearazteko.
8. Udalak titularitasun publiko zein pribatuko etxebizitza hutsen inbentario bat egingo du ahaik eta azkarren. Bere jabetzakoak hiritarren bizileku premien zerbitzura jar daitezkeen beharrezko diren neurriak hartuko ditu, bereziki fede oneko diren zordunen etxegabetzea saihestu ezin izan den kasuetarako. Era berean, hiriaren etxebizitza beharrak aztertuko ditu sei hilabeteko epean eta, hauen artean, pilaketak; erabiliak izan ezin diren etxebizitzak edo berritzeak behar dituztenak ere kontuan hartuko ditu.
9. Udalak aurreko legislaturan onartutako kaleratzeen kontrako protokoloa berresten du.
10. Udalak hiriaren sarreretan, etxebizitzaren kaleratzeen aurrean bere jarrera azaltzeko plakak jarriko ditu “Kaleratzerik Gabeko Herria” testuarekin.

ZARATEN MAPA, ERREFUXIATUEN EGOERA LATZA EDOTA GREGORIO OLASAGASTIREN AGURRA AZTERGAIEEN ARTEAN

Aztergai ugari iraileko Udal batzaraldian

Hamabost gai jorratu ziren oporraldiaren ondorengo lehenengo udal batzarrean. Gaiak oso bestelakoak izan ziren, etxegabetzeak, Carlos Garciaren kasua, zaraten mapa...

Gregorio Olasagasti zinegotzien artean ikusteko aukera izan zen ere. Ainhoa Elolak ordezkatzuko du urritik aurrera, udalgintzaren martxan.

Andoaingo zarataren mapa biltzen duen txostena onartu zuen udalbatzak, aho batez. Txosten teknikoak da funtsean, eta Ana Carrere alkateak adierazi zuenez, Andoainen N1 errepidearekin eta Urumeako autobiarekin lotzen dira zaratarekin zerikusia duten arazorik potoloenak. Ikerketa hori oinarri harturik, ekintza plana osatzea eta garatzea izango dela udalak eman beharreko hurrengo urratsa, iragarri zuen Carrerek. Nazioartean pil-pilean dabilen errefuxiatuen gaia ere az-



Uztailean Gregorio Olasagastik bere errenuntzia aurkeztu zuen, eta iraileko plenoan agur esan zien korporazioko kideei.

Zarataren mapa adostu eta ekintza plana osatzea izango da Udalaren hurrengo urratsa

tertu zuen udalbatzak, eta adierazpen instituzionala onartu zuen aho batez, krisi humanitarioari aurre egiteko asmoz babes-herrien sarera batuz.

Uda aurretik egin zen udal osaketako batzarrean zer esana eman zuen Gregorio Olasagastik uko egin zion zinegotzi karguari. Agur esateko hitza hartu

zuen eta zera adierazi: "konpromiso pertsonalari eusten diot, modu batera edo bestera Andoaingo herriaren mesedetan lan egiten jarraitzeko". Ondoren, laudoriozko hitzak luzatu zizkien zinegotzi guztiei: "badakit hemen zaudeten guztiok herriaren alde ari zaretela musutruk, eta merezi du hori aitortzea".

Etxegabetzerik gabeko herria izendatu zuten zuten Andoain, iraileko Udal batzaraldian. Lorpen handia Kalera-tzeak Stop Desahucios elkartearentzat.

Karlos Garciari eta senideei elkartasuna



Ikusleen artean, Karlos Garciaren senideak eta lagunak.

Karlos Garciaren lagunek proposatuta, honako bost puntu adostu zituen udal batzarrak: Karlos Garciaren berehalako eta baldintzarik gabeko askatasuna eskatzea, bizitza berregiteko aukera izan dezan Italian zein Euskal Herrian; herritarren oinarritzko eskubideak murriztu dituzten Auzitegi eta Lege bereziak desagertarazteko konpromisoa; bere senideei diru laguntza bideratzea, Erromara bisitatzera egin diren bidaien zama ekonomikoa eta aurrerantzean suertatzen direnena arintzeko; Garciari eta bere se-

nideei Udal Batzarraren elkartasuna adieraztea; eta, udalbatzan adosten dena komunikabideei helaraztea. Mozioaren bost puntuak banaka bozkatu ziren.

Bozketara iritsi aurretik, alderdi guztiek beren iritzia eman zuten. Antzeko gaiak Andoainen iraganean aztertu zirenetan ika-mika pizten bazen ere, oraingoan solaskide guztiek ere beste tono batean hitz egin zuten. **Maidar Lainez**ek PSE-EEren jarrera agertu zuen: "Aro politiko berri batean bizi gara, eta eragindako minaren aitormena behar da egin, bakeak eta elkar-

bizitzak bere bidea egin dezaten. Carlos Garciaren familiar eta lagunekin bildu gara, eta mozioari dagokionez, zenbait gogoeta egin behar dugu: ulertor izan gaitezke epaiketetan gertatuko zenbait kontuekin, baina aldi berean esan behar dugu auzi juridikoan zehar Garciak injustiziak pairatu zituela uste bada, berari dagokiola errekurso juridikoak abian jartzea. Garai berriek politika berriak eskatzen dituzte, eta nahiz eta mozioan agertzen diren zenbait adierazpenekin bat ez egin –faltan bota dugu sukurtsalaren erreketak gaitzestea–, uler dezakegu mozioaren atzean dagoen borondatea eta kezka. Badakigu urrats txikiak emanez aurrera egingo dugula bakearen eta elkarbizitzaren mesedetan, eta beraz, abstentziora joko dugu lau puntuetan. Besteari, diru laguntzak ematea eskatzen duen horri, ezezkoa emango diogu, ez baitugu ondo ikusten Udalak senideak diruz laguntzea".

Mari Jose Izagirre EAJko bozeramaileak ere abstentziora iragarri zuen: "gure alderdia beti

agertu izan da Entzutegi Nazionalaren existentziaren aurka, eta, pertsona orok epaiketa justu bat edukitzeko eskubidea eduki dezaten. Ez gaude ados mozioaren formarekin, eta ez zaigu mozioa eztabaidatzeko aukerarik eman. Guzti hori adierazita, aurreratzen dut gu abstenitu egingo garela".

Oiga Hernandez Ganemoseko zinegotziak ere Entzutegia kritikatu zuen "maiz, sententzia eredugarriak ezarri izan ditu justizia printzipioak ahaztuta; adibidez, ez ditu kontuan hartu errugabetasun presuntzioa. Argi geratzen da epaiketetan ez zirela baldintza guztiak bete, eta beraz, epaiketa justu bat eduki zezan nahi genuke".

Irabaziko **Jorge Mourinho** zinegotziak, mozioaren edukiarekin bat egiten zuela adierazi zuen, "gauza batzuk falta dira bere erredakzioan, baina aldeko botoa emango diot. Hori bai, bigarren puntuan, entzutegi nazionala desagertzeko udalak konpromisoa hartzen duela dioen puntu horretan abstenitu egingo naiz, teknikoki ezinez-

"Badakigu urrats txikiak emanez aurrera egingo dugula bakearen eta elkarbizitzaren mesedetan, eta beraz, abstentziora joko dugu lau puntuetan"

Maidar Lainez

koa iruditzen baitzait udal batek halakorik egin ahal izatea".

Bilduren izenean, **Jon Zulueta** hartu zuen hitza. "Injustizia ugari pairatu izan dituzte andoaindar askok, eta Carlos Garciarena da horietako bat. Hasiatik gertatu ziren bidegabekeriak kasu honetan: poliziaren eta epaileen prozeduran, fiskalaren neurritz kanpoko eskaera, kondena... Horrelako kasuek arrazoi dezente ematen dizkigute justizian sinetsi ez dezagun. Egia da garai berriak bizi ditugula eta terminologia aldatzen ari dela; horren frogara da udal honetan gertatzen ari dena, eta poztekoa da hori. Baina zoritxarrez, ez da iritsi euskal herritar guztiengana, Carlosengana adibidez".

ANTZEZLANA

Ongi etorri, Pottoki!! ostiral honetan Saroben

Ongi etorri, Pottoki!! izenburua daraman antzezlanaren taularatuko du Denda Berriko antzerki tailerrak Saroben, ostiral honetan, urriaren 2an. Komediaren erregistroa erabilia umorea eta kritika sozia-

la, bi osagarriak uztartzen ditu antzezlanak. Lau antzezle jarri dira Joxe Mari Berasategi *Txapas*en aginduetara: Juani Martin, Laura Martinez, Juan Peñagarikano eta Lupe Martiarena.

Umorea du nagusi antzezlanak.

Juan Peñagarikano. Bai horixe! Ekainean estreinatu genuen antzezlanaren Denda Berriren egoitzan bertan, eta ikusleak barrezka jarri genituen orduan. Gero etxean, zera esan zidan emazteak: "orain arte egin dituzuen antzezlanen arteak, hobereena zalantzarik gabe".

Lupe Martiarena. Publikoaren adinari dagokionez, Saroben Denda Berri eduki genuena baino zabalagoa izango dugula espero da, baina hala eta guztiz ere, iruditzen zaigu denek ere ia ordubeteko ikuskizun umoretsua eta kalitatezkoa ikusi izanaren sentsazioarekin irtengo direla antzeztokitik.

Antzezlanaren ezaugarriak kontatuko al zenituzkete?

Joxe Mari Berasategi. Bost zati ditu, bost ataletan banatzen da azken batean. Eszenatxoak doaz bata besteari atzetik, eta oso erraz ikusten da, pertsonaiak eta egoera ezberdinak tartekatuz doazelako, eta dena umoreak zipriztinduta.

Eta zein da jorratzen duen gaia?

J.M.B. Urnietan urnietarrok osatzen dugun egunerokotasunari begira jarrita inspiratu naiz gidoia egiterako garaian. Euskararekin gurasoek daukagun jokabidea islatu eta kritikatu nahi da. Aitona-amonek, gura-



Martiarena, Peñagarikano, Martin, Martinez eta Berasategi entsegu orokorrean, Denda Berriren egoitzan.

"Urnietarrok osatzen dugun egunerokotasunari begira jarrita inspiratu naiz gidoia idaztean"
Joxe Mari Berasategi

sook eta haurrek egunero hizkuntzarekin dauzkagun jokabideengatik barre egitea da kontua, baina kritika ahaztu gabe. Izan ere, kontrasteekin bizi gara Urnietan, bi mundu baleude bezala. Bertako ikastetxeek

euskaraz funtzionatzen dute beren egoitzen barruan, bai irakasle zein ikasleek; baina gero, ikasleak irteten dira kalera, eta guraso eta aitona-amonen esku geratzen diren une berean gaztelara hasten da nagusitzen. Bestalde, gurasoek euskararen aldeko diskurtsoa egiten dugu, beti euskaraz egingo dugula edo ikasiko dugula agintzen diogu geure buruari, baina gero errealtatean, ez da horrelakorik gertatzen.

J. P. Euskararen erabilera ez da komedia honek kritikatzeko duen alderdi bakarra. Begi zorrotzeko ikuslea berehala konturako da aitona eta amonekin maiz gertatzen ari dena ere kritikatu nahi duela antzezlanak. Beren seme-alabek hainbeste inplikatu nahi dituzte biloben zaintzan, jada ez daukela denborarik lasai bizitzeko. Gurasoek gero eta okupatuagoak daude, eta ikusten ari gara aitona-amonak ikastetxeko bileretara ere joateko trantzean jartzen dituztela.

L.M. Elkartean, zuzendari-tzakoez gero eta zailago dau-

"Denda Berri elkartearen aspaldiko nahia zen euskaraz ere antzezlan egin ahal izatea"
Lupe Martiarena

kagu astegunetan ekitaldirik antolatzea, aitona amonak okupatuta baitaude. Ez antolatu, gero, irteerarik, ez baitaizur inor etorriko! Arratsaldeko seietatik aurrera hasten dira Denda Berrira hurbiltzen, umeak gurasoen esku utzi ahal izan dituztenean, ez lehenago.

Euskaraz, lehenbiziko aldiz izango dela antzerkia azpimarratzen ari zarete.

J.M.B. Lau antzezlan aurkeztu ditu Denda Berri elkarteak antzerki tailerrak jendartean orain arte, eta gaztelania izan dute hizkuntza nagusia guztiek. 10-12 antzezleek osatu dute gure taldea azken urteetan; antzezle gehienak erdaldunak ziren orduan, eta zaila egiten zitzaigun euskaraz funtzionatzea. Azken hilabeteetan gertatu zaigu mu-

ANTZEZLANA

Zuzendaria:

Joxe Mari Berasategi *Txapas*.

Antzezleak: Juani Martin, Laura Martinez, Juan Peñagarikano eta Lupe Martiarena.

Iraupena: 50 minutu.

Hizkuntza: euskara.

Urriak 2, ostirala.

18:30. Doan. Sarobe.

rriztu egin dela antzezle kopurua; nork bere arrazoiak eduki ditu uzteko tailerra, baina kontua da lau antzezleekin geratu garela. Horietatik hiru euskaldunak dira, eta laugarrenari (Laura Martinez) ez zait arrotza egiten euskara, bere seme-alabek hizkuntza horretan ikasi baitute.

L.M. Denda Berri elkartearen aspaldiko nahia zen euskaraz ere antzerkia egin ahal izatea, eta oraintxe eman dira baldintzak horretarako. Herriz herri emanaldiak eskaintzen hasten garenean, jubilatutako askok eskertuko digutela iruditzen zaigu.

Elkartean urtero jartzen dugu iragarkia, bazkideak animatuz antzerkia egitera. Lau besterik ez gara bildu azken boladan, baina espero dezagun jende gehiagok izena ematea etorkizuneari.

Nor gonbidatzen duzue zuen komedia ikustera?

J.M.B. Mundu guztia! Izan euskalduna, izan erdalduna, izan euskara ikasten ari dena, izan haurrak, gazteak, haurrak dituzten bikote gazteak, horien aitona-amonak.... Barre egiteko prest dagoen edonor etorri dadila, ez baita damutuko. Ikusle askok identifikatuta ikusiko dute euren burua eszena askotan, bere buruaz barre egin ahal izango dute, eta horietako arrazoi bat nahikoa behar luke izan Sarobera bertaratzeko.



**EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO**

HEZKUNTZA, HIZKUNTZA POLITIKA
ETA KULTURA SAILA

DEPARTAMENTO DE EDUCACIÓN,
POLÍTICA LINGÜÍSTICA Y CULTURA

2015, Sanmielak

Datorren urtera arte!



Urnietako Udalak
gehigarri hau
argitaratuz jairik
zoriontsuenak
opa dizkizue
urnietar guztiei

Urnietak



Jai giroa ostegunean piztuz joan zen

JAI BILGUNE NAGUSI IZAN ZEN TXOSNA EREMUAREN IREKIERA OSTEGUN ARRATSALDEAN EGIN ZUTEN.



Txosnen irekiera itxafero eta guzti iragarri zuten, ostegun arratsaldeko kalejiran.



Probalekuan bildu zen flamenka taldea. Handik Jakutegi plazara joan zen, beste hiru txosnak irekitzera.



Trikitilari taldea ostegun arratsaldean kalejiran aritu zen.

Sanmielen ekitaldi gehienak irailaren 24tik 29ra bitarte burutu ziren. Ostegun arratsaldean giroz berotuz joan zen, txosnen irekiera ekitaldiarekin. Eguraldia lagun, txosnen eremua eta

San Juan plaza festazaleen bilgune nagusiak bilakatu dira. Musika eskaintza oparoa iragarri zuten aurtengo jaietan, eta horrek inguruko herrietakoak erakartzea ahalbidetu zuen.

Jaien hasierako pregoia eta suzeria

BOSKO ANITZ TALDEAK ETA ANTZERKI TAILERRAK JAIARI HASIERA EDERRA EMAN ZIOTEN.



Miela iritsi aurretik, Bosko Anitz aisialdi taldeko begiraleak udal batzaraldi aretoan.



Afrikarrak, txinatarra eta errusiarrek agertu ziren balkoian, alkatea eta idazkaria alboan zituztela.

Udal antzerki tailerreko kideek alkatearen agurra irudikatu zuten, eta jaietara nazioarteko hiru herrialdeetatik hurbildutakoei ongi etorria egin zieten. Afrikarrek elefantea galdu zuten, txinatarra norbaitek zapaldu zuen eta errusiarrek vodka eske agertu ziren. Umorea, mozarroa eta antzerkia uztartzen zituen hasiera horren ondoren, antzerki tailerrekoek Bosko Anitzeko kideei hitza eman zieten. Hogeita bosgarren urteurrenean, **Eduarne Orbegoza** eta **Lidia Martin** begiraleak izan ziren pregoia irakurri zutenak: “Benetako ohorea da guretzat hitz hauek zuei urnietarroi eskaintzea, zuek baitzarete Urnietako sanmioletako arima. Denak garelako jaien arima, gaztetxoenetik heldueneraino. Zuetako bakoitzak jaiak ahalik eta hobekien disfrutatzeko gonbitea zabaldu nahi dizuegu, bakoitzak nahiago duen eran bizi ditzala. Ondokoarekin bat eginda, aurtengo Sanmielak aurreko urteetakoak baina ho-



Miela San Juan plazara hurbildu zen, haur eta herrikide ugari zain zituela.

beagoak izateko ahalegim guztiak jar ditzala. Guztion ardura da hori ahala izatea!”.

Alaitasuna ere aipagai izan zuten pregoian, “beraz, denak ongi pasatzera eta sanmielak behar diren modan disfrutatzera! Festa parekide eta euskaldun batzuen alde gora Sanmielak, gora Urnieta eta gora urnietarrak!”.



Urdanbor eta Kañoyetan elkarrekin

DANBORRADA JENDETSUA IZATEN DA JALETAKOA. KALEJIRAN IRTEN ZIREN URDANBOR ELKARTEKO KIDEAK, BOSKO ANITZ TXARANGAK JARRITAKO DOINUEN ERRITMORA. AURTEN, GAINERA GONBIDATU BEREZIAREKIN, DONOSTIAKO KAÑOYETAN ELKARTEA.



Iñistor eguneko bertso saioa

IÑAKI ARANZADI APAIZA GOGOAN IZAN ZUTEN AURTENGO IÑISTOR JAIAN, BERTSOLARI AMORRATUA BAITZEN.



Elustondo, Gurrutxaga, Gaztelumendi, Iguaran eta Agirre igandeko bazkalostean.

Aurtengo Iñistor jaiaren ezin ahaztu pertsona bat, **Joxeba Lizeagak** jaiaren hasieran gogoan hartu zuena: **Iñaki Aranzadi** apaiza. “Gaurko Iñistor jai honetan hutsune bat nabaritu dugu. Urtero gure artean izaten genuen eta duela bi urte Urnietar Prestu izendatu genuen. Duela gutxi utzi gaitu Iñaki apaizak. Jakin badakigu, dagoen tokian dagoela, bera ere gu bezalaxe adi-adi egongo dela orain hastear den bertso saioa entzuteko prest”.

Amaia Agirre gai jar-tzaileak lau bertsolariak lanean jarri zituen, gai honekin: “Laurok euskara ikasteko asmoz Urnietako baserri batera hurbildu zarete. Iritsi orduko, baserriko maiorazgoak egin beharrekoak jarri dizkizue mahai gainean. Janaren eta ohearen truke, lan batzuk egin behar: behiak jetzi, baratza aurrera eraman, arrautzak bildu eta saldu, eta, baserriko amona zaindu. Nork zer egin behar duen erabaki behar duzue”. Horra lau bertsolarien saioa:

Beñat Gaztelumendi

Adinekoei entzunez berez ni ibili ohi naiz adi, baina ez diot tutik ulertzen baserriko amonari.

Nerea Elustondo

Neroni ere nahiz ta nabilen Beñat dabilen antzera, arrautz bildu ditza amonak ta ni joango naiz saltzera.

Iñaki Gurrutxaga

Lanak pilatzen ari zaizkigu hori oso garbi dago, honek amonai ezin ulertu ta nik gogo gutxiago.

Beñat Iguaran

Amonak denak ezagutzen ditu hori da gauza normala beraz arrautzak bildu ditzala ta gero saldu ditzala.

Beñat Gaztelumendi

Arto tarteko hegazti horiei nago begira-begira, kukurrukuka ari direnak ere oiloak al dira?

Nerea Elustondo

Nik nahiz badudan duda txiki bat baratza lanak hartzeko zelaia ondo kokatuta al dago marihuana landatzeko?

Iñaki Gurrutxaga

Landare horiek sartu ezkerro baietz lur dana lehortu. Beno, behiak nik jaitisiko ditut, igotzea zuen kontu.

Beñat Iguaran

Baino baratzean atxurra hartu eta zertan galdu tartea. Askoz hobea ez ote degu Eroskira joatea?

Beñat Gaztelumendi

Egia da, bai, Eroskiana hobe genukela maiz.

Nik ja zelaira begiratze hutsez izerditan hasten bainaiz.

Nerea Elustondo

Nahiz ta Eroskin egin daitezken ez dakit zenbat enkargu, behia nik pozik jetziko nuke cola-caio ematen badu.

Iñaki Gurrutxaga

Sinplifikatuz Eroskiraino joango gera orduan ta amona hantxe utziko degu mostradorian onduan.

Beñat Iguaran

Gu denok nire ustetan geldik askoz hobe gaude berez. Lanik ez degu egingo eta euskaraz ikasi ere ez.

Beñat Gaztelumendi

Ez baita ona iristen ez den toki batean sartzea, aukeran askoz hobe genuke AEKra bueltatzea.

Nerea Elustondo

Ba, bai, nik ere aldegingo det bela AEK aldera. Ta baserrira bueltatuko naiz lotara eta jatera.

Iñaki Gurrutxaga

Beraz lana zen hemen baldintza, hortaz jabetuta gaude. Nik hilabete aguantatzen det mokadurik probatu gabe.

Beñat Iguaran

Euskara ikasita ta lana egin, a zer nolakoa abaila. Euskara ikastea errexa da lana egitea da zaila.

Maila goreneko irrintzi lehiaketa

ARRIAGA ORIOTARRAK IRABAZI ZUEN, GABIRONDO URNIETARRAREKIN LEHIA ESTUAN.



Ana Gabirondo, Arriaga txapelduna eta Rosa Elozegi epaimahaikidea.



Aurtengo epaimahaia: Maripi Sarasola, Rosa Elozegi, Jon Unanue eta Fermin Zinkunegi.



Jon Tolosa, haurren mailako irabazlea.



Egoitz Ibabe adinean txikiena, eta bigarrena.

Maria Arizmendi VII. irrintzi lehiaketaren zazpigarren edizioan inoizko mailarik handiena ikusi ahal izan zen, eta helduen mailan azken urteotan maila onena erakutsi duen **Nerea Arriaga** oriotarrak aurkari gogorrak izan zituen. **Ana Gabirondo** urnietarrak eta Aitziber Santamaria aramaiotarrak, esaterako, oso maila ona erakutsi zuten. Arriagak horixe bera nabarmendu zuen, lehen saria eskuratu eta berehala: “aurten oso maila handia egon da. Partaide asko ginen, eta bizpahiru oso antzeratsu ibili gara. Urtez urte hobetzen doala dirudi. Aurtengoa izan da niretzat zailena”. Antolatzaileei eskerrak eman zizkien.

Gabirondo ere pozik zegoen, “gero eta maila handiagoa dago. Nerea gutxigatik aurreratzen zait beti. Urtean behin bakarrik parte hartzen dut. Pozik nago egindakoarekin”.

Helduak:

1. Nerea Arriaga (Orio).
2. Ana Gabirondo (Urniet).
3. Aitziber Santamaria (Aramaio).
4. Oihana Ameskoa (Aramaio).
5. Mari Karmen Martin (Urniet).
6. Fran Bravo (Urniet).
7. Iñaki Baños (Urniet).

Haurrak:

1. Jon Tolosa (Urniet).
2. Egoitz Ibabe (Aramaio).
3. Uxue Ibabe (Aramaio).

Justo Egañak “opari” modura hartu zuen Urnietar Prestu omenaldia

“EROSO SENTITU IZAN NAIZ URNIETAN, ETA HORI OSO INPORTANTEA IZAN DA NIRE BIZITZA GUZTIAN ZEHAR. KANPOKOA IZANIK, URNIETAR SENTITU NAIZ ONARTUA IZAN NAIZELAKO”, ADIERAZI ZUEN OMENALDI EKITALDIAN.



Maripi Sarasolak eta Mikel Pagolak ipini zioten Urnietar Presturi dagokion zapia.



Juxto Egañak Urnietar Prestu izendapenaren oroigarria jaso zuen omenaldi ekitaldian.

Merezimenduen zerrenda oparoa entzun zuen lehenik, opariak jaso zituen, agurra dantzatu zioten ondoren, musikari eta lagunek kantu eta laudorio gehiago eskaini zizkioten,... Justo Egañak adi-adi jarraitu zituen hitzez eta doinuaz egin zizkioten adierazpen guztiak, hitza hartzeko txanda iritsi zitzaion arte. Jasotako hitz eder guztiak aurreikusita edo, apaltasunez hitz egin zuen. Eta eskertuta, nola ez, herriari eta herrikideei erabat eskertuta. “Bizpahiru egun atzera, plazan ginela, batek esan zidan: *um, omenaldi hauek globo baten itxura hartzen dute. Puztu eta puztu, honek hau egin dik, eta bestea eta bestea,... azkeneko globoa lehertzeko zorian egoten da*. Ez dakit omenaldia merezi dudan. Hau niretzat opari bat da, erregalo bat, eta bere horretan uzten dut. Urnietako herriari itzuli nahi diodan oparia da. Esango dizuet zergatik. 1969an etorri nintzen ikastolako irakasle izateko asmoz, San Miguel jaiak ziren ere. Lehen sentipena, eta geroztik beti izan dudana, Urnietak ondo hartu nauela izan da. Eroso sentitu izan naiz Urnietan, eta hori oso inportantea izan da nire bizitza guztian zehar. Kanpokoa izanik, urnietar sentitu naiz onartua izan naizelako”. Hainbat pertsona aipatu zituen, baina bereziki

“Ez dakit omenaldia merezi dudan. Hau niretzat opari bat da, erregalo bat, eta bere horretan uzten dut. Urnietako herriari itzuli nahi diodan oparia da”

Pagoaingo Joxe Mari Zapiain nabarmendu zuen, “gaur hemen baldin banago neurri handi batean berari esker da”. Txanbolin taldea sortu zuen, Urnietan 70eko hamarkadan zegoen hutsunea betetz. “Garai hartan Urnietara Hernanitik zetozen txistua jotzera. Halako batean esan nuen, biribilketa pare bat badakizkigu, eta kalea irten ginen. 1975a zen. Gurea bai atrebentzia! Lehen urtean jotzen hasi eta leihoak zabaltzen hasi ziren, zer eta dirua botatzeko! Harrituta geratu ginen. Huraxe izan zen egin ziguten harrera herrian. Bikakina”. “Txistulari taldeak ibilbide luzea egin du, tren horretatik jendea jaitsi eta igo egin da, eta gaur egun 9-10 txistulariko talde finkoa daukagu. 1975eko kalejiran Antton Jauregi zegoen. Hark nire ibilbidea jarraitu du. Nire ikasle izan zen, gero ikaskide izan gara, eta orain Ormaiztegiko txakurrak bezala, harrapatu eta pasa egin nau”.

HERRITIK JASO ZUENA, HERRIARI ITZULI
Bukatu aurretik, urte luzez jasotakoa herriari itzuli nahi izan zion Egañak: “Nik zerbait egin baldin badut, herriak onartu duelako izan da. Herriari zor diot nik egindako guztia. Beraz, herriari eskaini nahi diot gaurko omenaldia”. Eskertzen atalean etxeak gogoan izan zituen. Baita Iñistora elkarte ere. Bukatzeko hasierako pasadizua hizpide hartu zuen berriro, jasotako energia hori urnietarrei itzultzeko: “Globoa gehiegi puztu ez dadin, lehertu ez dadin, herriari ematen diot bueltan. Ni ezer gabe geratzen naiz. Milesker guztioi eta besarkada bat”. Hori esan eta txalo zaparrada

lehertu zen Jakutegi plazan. Luzea eta sentitua izan zen.

DOINUEN TARTE BEREZIA IZAN ZUTEN OMENALDIAN
Musika, musika eta musika. Aldaera ezberdinetan musika erabili zuten bere inguruko lagunek. Hasteko, Maripi Sarasolak Habanera abestu zion: *Zorionik beroenak urnietar prestuari, merezitako omena egiten zaio Justori. Azkoitia jaio eta Urnietara etorri, herriko kulturen alde egin duzu lan ugari. Ikastolako maisua baita ere txistulari, Parrokiko abesbatza izan zara zuzendari,*

“Nik zerbait egin baldin badut, herriak onartu duelako izan da. Herriari zor diot nik egindako guztia. Beraz, herriari eskaini nahi diot gaurko omenaldia”

helduen euskalduntzean, beste lan gogoangarri. Gauza asko eman diozu Urnietako herriari.
Antton Jauregi niretzat Egaña mugarririk izan da bere bizitzan, “urte askoan elkarrekin lanean egon gara. Bihotzez diot sekulako babesa izan dela niretzat, eta esker onez sortu dut kalejira berri bat Juxto izenekoa”. Segidan, Txanbolinek lehen aldiz eskaini zuen jendartearen. Kopla batzuk eskaini zizkion Xabier Ubillos kitarra joleak, “Juxtoren alde rockeroa naiz ni” adieraziz. Bazkarian ziren ehun lagunengatik pentsamenduak hitza jarri zien Ubillosek, “nahi dizugu esan merezimendu osoz, eskerrik asko lagun, bihotz-bihotz”. Iñistor jaia, beste urte batez, euskaltzaleen bilgunea izan zen. Toka txapelketa, herri bazkaria, bertsolariak, omenaldi ekitaldia, irrintzi lehiaketa,... dozentatik gora bolondresen lanari esker bikain igaro zen eguna.



Xabier Ubillosek eta Antton Jauregik doinu pieza eskaini zioten Egañari.

Fatima eta Jon alkate txikiak

ASTELEHEN GOIZEAN KARGUA HARTU ZUTEN, ILUNTZERA ARTE IRAUN ZUENA.



Alkate txikiek udaletxeko balkoitik suziria bota zuten, astelehen goizean. Argazkian Fatima Abila.



Alkate txikiak aginte-makilarekin.



Aurrera Gure Ametsa taldekoek belauntxingoa dantza eskaini zuten.

Alkatearen papera ondo baino hobeto bete zuten **Fatima Abila** eta **Jon Lertxundi** urnietar gazteek. **Mikel Pagola** alkateak zumitza aginte makila bana eman eta, horrekin batera, udaletxean jai hartu zutenen kargua betetzeko agindua eman zien. Aurrera Gure Ametsa taldeko kide-

ek ongi etorria egin zuten belauntxingoa dantzatzuz. Horrez gain, benetako aginte makilarekin argazkia atera nahi izan zuten alkate txikiek eta ondoren, baita udaletxeko balkoitik suziria bota ere. Egun osorako hartu zuten alkatearen ardura.

Salesiar familiari omenaldia

URREZKO EZTEIAK BETE DITU IRAKASKUNTZA GUNEAK; HOGEITA BOST URTE BERRIZ AISIALDI TALDEAK.



Omenduel agurra dantzatu zuten ekitaldiaren hasieran, Egape dantza taldeko bi kidek.

Angel Miranda eta **Jose Luis Pinedo** Salesiar ikastetxearen ordezkariak izan ziren Udal omenaldian. Ikusleen artean ere kide gehiago ikus zitezkeen. Omenaldi bakarra bazen ere, Udalak bi arrazoi nagusi aurkitu ditu aurtengo omenaldi ekitaldirako. Batetik, Salesiarrak urnietara iritsi zireneko 50. urteurrenaren ospakizuna. Eta, bestetik, ikastetxera oso lotuta dagoen **Bosko Anitz aisialdi taldearen** 25. urteurrena. Ikastetxea eta aisialdi taldea, biak ala biak, Urnietan oso errotuta dauden eragileak dira.



Omenaldiari dagokion oroigarria jaso zuten.



Larrañaga eta Etxeberria bertsolariek bertsoen bitartez Salesiar familia gogoan izan zuten.



**Gipuzkoako
Foru Aldundia**
Euskara Zuzendaritza

Mielari agur, datorren urtera arte

SAN MIGUEL EGUNAREN AMAIERA ALDERA, MARIZULOKO BIDEA HARTU ZUEN MIELAK. DATORREN URTEAN ITZULIKO DA.



Haurren eta helduen txalo artean agur esan zuen Mielak, datorren urtera arte.



San Miguel egunaz gozatu zuen koadrila, Mielaren agurrean.



Zezen suzkoarekin eta azken trakarekin amaiera eman zieten San Miguel eguneko ospakizunei.

Sanmioletako lehen txanpa astearte gauean amaitu zen, zezen suzkoarekin eta azken trakarekin. Minutu batzuk lehenago, Mielak udaletxeko balkoitik elizaren kanpandorrerako bidea hartu zuen. Txalo artean agurtu zuten herrikideek. Astearte gaueko hitzorduak amai-

tu eta minutu gutxira plaza hustu egin zen, biharamunean egunerokoari berrekiteko. Ospakizunak, ordea, ez dira amaitu eta jaiez gozatzeko aukera berria izango da asteburu osoan zehar. Lehen txanpa bikain igaro da, eguraldia lagun izan da gainera.

Asteburu honetan hitzordu gehiago

EGAN TALDEA, ERRENAZIMENDUKO DANTZAK ETA TXEKOR JATE SOLIDARIOA.



Egan taldeak ohiko saioa eskainiko du igande honetan.

- Urriak 2, ostirala**
18:30 Ongi etorri pottoki Denda Berrikoen antzezlanaren Saroben.
- Urriak 3, larunbata**
16:00 Kriteriuma Idiazal kalean.
18:30 Musical, zaharren egoitzan.
18:30 Mendi bizipenak hitzaldia Leikaion, Alex Txikonen eskutik.
19:00 Dantza ikuskizuna Saroben: Asturiaseko Asociacion folklorika “Cuelebre” eta Aurrera Gure Ametsa dantza elkartearen Errenazimenduko dantzak.
20:30 Ondartxo abesbatza elizan.
- Urriak 4, igandea**
10:00 Diana Txanbolinen eskutik.
11:00 Meza nagusia.
- 11:00 Pasaka pilota erakustaldia.
11:00 Erdi aroko produktuen azoka: eztia, olioak, ardoa, sagardoa.
11:30 Zaldi proba probalekuan.
12:00 Ingurutxoa, Jalgi Plazara. Errenazimenduko dantzak.
13:00 Falkoneria: Araba green Falcons.
13:00 Munduko ardoak eta sagardo. Artisautza postuak, falkoneria, Ingurutxoa eta Errenazimenduko dantzak plazan.
17:00 Herri kirol erakustaldia probalekuan. Trikitilarien kalejira.
18:00 Txekor jate solidarioa eta sagardo dastaketa plazan.
19:00 Egan taldea plazan.
21:00 Jaiari agurra.
21:15 Zezen suzkoak, azken traka.



Errenazimenduko dantzaz gozatzeko aukera izango da asteburu honetan.



Herri kirol erakustaldia igande arratsaldean, 17:00etan hasita Probalekuan.

Dozenaka hitzordu egun gutxitan



Gaizka Peñafielek sare sozialetan Esne Beltzaren kontzertuko irudi esanguratsua atera zuen.



Jon Martin bertsolaria eta bere musikariak probalekuko txosnagunean aritu ziren, igande arratsaldean.



Emakumeen kalejira larunbat arratsaldean, txarangaren aurretik.



Denda Berri elkartean dantzaldia antolatu zuten jaietan.



Kale antzerki ikuskizunak ikusmin handia piztu zuen.



Jon Jauregik aurtengo margo lehiaketa irabazi du. Bere artelanak ikusgai jarri zituen San Juan plazan.



Mielatxo, Super H taldearen ikurra aurtengo jaietan. Igandean ipuin kontaketa saloa antolatu zuten.



Txistulari bandaren musika emanaldia San Juan plazan, Egape dantza taldeko kideen laguntzarekin.

Eguerdiko hamabietan hasita, Juanita Alkain plazan

Euskara plazara

Mahai batean lau-nakako talde txikiak bildu eta patxadan, hizketan jarri hainbat gairen inguruan. Horixe da Mintzodromoak proposatzen duena larunbat honetarako, eguerdiko 12:00etatik aurrera. Kafea eta pastatxoak ziurtatuta daude.

Gaur euskara praktikan jarri eta bihar euskaraz bizi! Mintzodromoak aldarrikatzen duen leloa da. Edonork har dezake parte, ez du zertan izan behar euskara ikasten ari den ikaslea. Euskaraz mintzatzea eta antolatzaileek jarritako gaien inguruan tertulian parte hartzeko gogoia edukitzea da eskatzen diren bi baldintzak.

Mintza Lagun ekimenaren baitan kokatzen da Mintzodromo, eta AEKK, Andoaingo Euskara Zerbitzuak eta Ondarreta ikastetxeak antolatu dute. Eguraldia onaz eginez gero, Juanita Alkain plazan egingo da; bestela, Bastero kulturguneko kanpoaldean.

Ekimena girotzeko, musika ere entzun ahal izango da, Andoaingo Udal Musika eskolako ikasleen eskutik.



Juanita Alkain plazan bilduko dira larunbat honetan.

Hiru gai proposatu dituzte tertulietarako, eta gaiari nondik heldu zalantzak dauzkana-rentzat, zenbait galdera luzatu dituzte:

1. ANDOAIN: BI HERRI?

Herria bi zatitan banatu al da? Zein da herro honen erdigunea? Egokia al da horrela banatuta egotea? Pintxo-pote bat bakarria egon beharko luke?

2. EUSKARAREN ERABILERA

Andoain herri euskalduna al da? Euskararen erabilera altua ala baxua dela uste duzu? Zer

egin daiteke Andoain herri euskaldunagoa izan dadin?

3. HERRI BIZIA?

Andoain herri bizia dela uste al duzu? Aisialdirako eskaintza egokia al da? Bertako elkarteak ezagutzen al dituzu? Batere batean parte hartzen al duzu? Asteburuetan herrian geratzen al zara?

Mintzagai bakoitzari 15 minutu eskainiko zaizkio.

Antolatzaileek adierazi dutenez, komeni da alde aurretik izena ematea.

943 591 704
andoain@aek.org

Auzoz auzoko topaketak antolatu dituzte datozen bi asteetan

Bilera sorta deitu du Udalak

Lehen ehun egunak igaro eta gero, udalgintza martxa onean doala adierazi du EH Bilduk zuzentzen duen Udal gobernu taldeak, “denbora honetan guztian Udal gobernu osatu dugu, ardurak banatu ditugu, oposizio alderdiekin lehen hartu-emanak izan ditugu eta lehen batzordeetako deialdiak burutu ditugu”. Ohar horretan diotenez, uda aurretik oposizio al-

derdi guztiei euren egitasmoen berri eman zieten, “agintaldi honetarako gobernu egitasmoa aurkeztu genien. Udal gobernuarentzat oso dokumentu garrantzitsua da, horrek markatzen baitu Udalak zer nolako lan-lerro edo ildo eramango dituen aurrera. Dokumentu hori agiri bizi bat da, momentuoro eta legegintzaldiak irauten duen bitartean, elkarlanaren

eraginez, ekarpenak jaso edo aldaketak jasan ditzakeena”. Oposizioarekin ez ezik, herritarrekin batera lan egiteari etsiko diote eta datozen asteetarako bilera sorta iragarri dute, “herritarrekin zuzeneko eta aurrez aurreko hartu-emana ezin bestekoa da guretzat, eta horregatik, auzoz auzoko topaketak deitu ditugu urriaren lehen hamabostaldian”.

Urriaren 9an amaituko da izena emateko epea

Helduen eskola hastear da

Helduen eskola ikastetxe ofiziala laster hasiko da, eta izena emateko epea datorren urriaren 9an amaituko da. Matrikula doakoa da eta irakasleak, irakasle tituludunak eta espezializatuak dira.

Ikasturtea bi lau hilekotan antolatuko da: Iraila-otsaila

eta otsaila-ekaina. Eskolak goizez, arratsaldez eta gauez eskaintzen dira. Bigarren Hezkuntzako Graduatua lortzeko eskolak ematen dituzte. Horrez gain, euskara, ingelesa eta informatika alorrean oinarrituko formakuntza. Egun guxi barru bukatuko da izen ematea.

IZEN-EMATEA

Astelehenetik ostegunera, 10:00etatik 12:00etara eta 15:00etatik 17:00etara. Ostiralean, goizez soilik.

Hernani:

Antziola, 62. 943 335 318.

Andoain:

Nagusia, 4B. 943 304 021.

Gobernuaren lehen ehun egunak PSEren ikuspegitik



Andoaingo PSE-EEren udal taldea: Romero, Gonzalez, Lainez, Garcia eta Parron.

Aurreko ostiralgoizean Andoaingo PSE-EEren udal talde osoak prentsaurrekoa eskaini zuen euren egoitzan, Udal gobernu taldearen lehen ehun egunen balorazioa egiteko. Hitzetik ekintzetara pasatzeko dei egin zion Ana Carretek zuzentzen duen taldeari, “dagoeneko ehun egun igaro baitira Bilduk alkatetza eskuratu zuenetik eta, zoritxarrez, ezer gutxi baloratu daiteke. Gutxi dira hartu dituzten erabakiak. Ardurak banatu, oposizioarekin harremanekin eta lehen batzordeak deitu. Alegia, udalgintzari jarraipen hutsa egitera mugatu direla. Beharbada haien zat hori da martxa onaren adierazgarria, baina guretzat balorazio triste eta etsigarria da”.

Lainezentzat ulergaitza da, aurreko urteetan Bildu alkatetzan izan baita. Udal dinamika ezagututa, eta Andoain herriari dituen arazoak jakitun, erakutsi duten jardueratik horrek balorazioa etsigarriagoa egiten du. “Eta ez da egitasmo faltagatik izan-

“Agintaldi honetan irtenbideak aurkitu behar dira, alor garrantzitsuetan”

go. Badira hainbat arazo, eta horiei irtenbidea aurkitu behar zaie. Andoaindarrok ez dugu merezi beste lau urtez eskuak gurutzaturik egotea. Agintaldi honetan irtenbideak aurkitu behar dira, horien artean hauexek dira guretzat garrantzitsuenak: uraren eta argiteriaren arazoari irtenbidea ematea, Beterriko garapen agentzia martxan jartzea, hondakinen kudeaketa sustatu eta behingoz bosgarren edukiontzia ezartzea eta turismoaren aldeko apostu garbia egitea Donostia 2016 europako kultur hiriburuaz baliatuta”. Horiez gain, Andoaingo PSE-EEK agintaldi honetan bizikidetzan sakontzeko erronkari eustea garrantzitsua dela deritzo. Oposiziko lehen indararentzat zereginen zerrenda luzea da, eta irtenbideak aurkitu behar dira.

EH Bildu Kataluniako prozesuarekin bat



EH Bilduko Udal ordezkariak eta herritarrek hurbildu ziren elkarretaratzera.

“Kataluniak erabaki, Euskal Herriak erabaki” lelopean, Juanita Alkain plazan elkarretaratzea deitu zuen EH

Bildu koalizioak. Ostiral arratsaldeko hitzordura hainbat zinegotzi eta herritar hurbildu ziren.



FELIPE IZAGIRRE • URNIETA

Irailaren 27a, oraina eta iragana

Irailaren 27ak, aurtengoak alegia, bi gertakari garrantzitsu eka- rri dizkigu: Kataluniako hautes- kunde plebiszitarioak, eta duela 40 urte Frankismoak fusilatuta- ko Txiki eta Otaegi eta FRAP- eko beste hiru militanteen oroi- mena. Bata orainean kokatuko nuke; bestea, berriz, iraganean, oroimenean alegia.

KATALUNIAK HAUTUA EGIN DU

Gora-behera askoren ondoren, independentzia bai, independen- zia ez izenpean hauteskunde plebiszitarioak egiteko erabakia hartu zuten Kataluniako aginta- riek. Denok ezagutzen dugu Ka- taluniak egin duen gurutze-bidea populazioaren nahia gauzatu eta nazio identitatearekin eskuratzeko. Estatutu berria ere egin zuten baina Alfonso Guerra sozialista- ren esanetan eskuilatu edo orraz- tu zuten, eta, jakina, Estatutua buru soilik utzi zuten. Galdeketa egiten ere saiatu ziren baina eki- men hori ere Gorenera bidali zu- ten eta, honek zer esango, ba, ez zela legala. Ukazioaren ukazioz, hauteskunde plebiszitarioak dei- tu zituzten, horrela, populazioak hauta zezan, Independentismoa bai ala ez. Tartean bazeuden, ha- lere, erabakitze eskubidea de- fendatzen zutenak, eskubide hau erabat demokratikoa baita eta hauteskundeetatik at izan behar bailuke. Nik, askotan esan eta idatzi dut ez zaidala gehiegi gus- tatu prozesu hau eramateko mo- dua, garbi utzi behar baita eraba- kitzeko eskubidea eskubide de- demokratikoa dela eta ezin daiteke- ela Independentziarekin identifi- katu. Baina, tira, darraigun 27ko hauteskundeekin.

Kanpaina, aspektu formalean, azalean, forman esan nahi baita, bitxia, normaltasunez jantzia eta osagai askotarikoa izan da. Hala nola, dantzak, musika, indioak, indioen hizkera... Kanpotarrak ere etorri dira, Sarkozy esatera- ko, PPK beldurra sartu nahi izan baitu, nahiz eta esan hauteskun- deak soilik autonomikoak izan. Europearrek ere hitz egin dute: Merkelek. Amerikarrak ere bai, denek ere katalanei beldurra sar- tzeke. Eta bitxikeria bat: Valen- tziako Apezpikuak ere otoiz saioa prestatu du España sakra- tua apurtu ez dadin. Honek ez al dizue gogorarazten Gerra zibila, non Elizak gurutzada bat antola- tu zuen? Begira non gauden. Ge- ro harritu egiten gara herriko festetan eta eliza eta estatua be- sotik ikusten ditugunean. Ba, gazteleraz esan ohi den bezala: "De aquellos polvos estos lo- dos".

Emaitzak, izan direnak dira. Independentistak aulkietan bai, baina bozketan ez dute irabazi. Ciudadadansek gora egin du, ni- re ustez PPri bozkak kendu diz- kio; PSCk behera eta, Katalunia Si es Potek ere ez ditu espero zi- ren adinako bozka lortu, nahiz eta berak defendatu erabakitze- ko eskubidea. Bozketan, ordea, esan bezala, independentismoak ez du irabazi. Hauteskunde oro- ren ondoren bezala, Katalunian ere, hauteskunde ororen ondo- ren gertatu ohi den bezala, al- derdi bakoitzak bere ondorioak ateratzen ditu, eta, gehientsue- netan denak pozik.

Eta orain? Hor kokka. Batetik hedabide eta tertulia guztiak Ma- sen etorkizunaz aritu dira, ezen badirudi CUP alderdiak ez duela Mas presidente gisa onartuko. Bestetik, egokia al da indepen- dentismoak ez badu bozketan gehiengo lortu aldebakarreko aldarrikapena egitea? Nire irudi- ko eta, agian nire nahi bezala esango nuke, CUPekin nago Ma- sek ezin duela President izan. In- dependentzia aldarrikatu dute- nak gehi Katalunia Si es Potek parlamentuan gehiengo sendo bat bermatu behar lukete eta la- nean hasi. Arazo sozialei eran- tzun bat ematen hasteko, demo- krazia birgarbitzen eta gisa hone- tako zenbait ekimen aurrera era- maten; herritarren konfiantza sortu eta, Espainiako hauteskun- deei begira indar sendo bat lortu erreferendum garbi, eta demo- kratiko bat egiteko. Ez dut oso egokia ikusten, emaitzak kontu- tan hartuta, aldebakarreko alda- rrikapen bat egitea. Baina hori nire iritzia da. Etorkizunak esa- nen du.

IRAGANA

Irailaren 27a izan zen Txiki, Ota- egi eta FRAPeko hiru militante Francok hil zituen eguna. Nire omenaldi xumea eskaini nahi diet. Egun hartan Segoviako kar- tzelan nengoen, eta hilketa hauen kontra agertu ginelako isolamenduan zigorturik geun- den. Gogoan dut barnean sentitu nuen zirrara hil zituztela jakin nuenean. Ez litzaidake gustatuko heriotz haiek gaur egun nehor- k manipula ditzan. 40 urtetan bi- dea luzea egin baita justizia, erreparazioa eta memoria exiji- tuz. Eta horretan jarraituko dugu talde memorialistek.

Txiki, Otaegi, eta FRAPekook oroimenean zaituztegu eta justi- zia unibertsalaren izenean justi- zia, erreparazioa eta memoria eskatzen eta exijitzen jarraituko dugu. Besarkada bana.

The Lookers, Perlak eta Joseba B. Lenoir Gang taldeak

Ostiral honetan musika zuzenean Gaztetxean

Urriaren 2an, ostiral honetan, Musikazuze- nean atari digitalaren aldeko festa egingo dute Andoaingo gaztetxean. Gaueko 22.00etatik aurrera, The Lookers, Perlak eta Jose- ba B. Lenoir Gang taldeak ari- ko dira oholtza gainean. Zuze- neko kontzertuak amaitzean, musika jartzaileak izanen dira, gaudiak borobiltzeko asmoz.

PERLAK

Euskal Herriko indie post- punk eszenan sortu zen 2013an Perlak talde zarauz- tarra, euren kantu bizigarri eta kitzikagarriez publikoa sutuki erakarriz. Intentsita- tea, hurbiltasuna eta bereha- lakotasuna dira taldearen ezaugarriak nagusienak, sen- tikortasun handiko tarte gor- dinak eta ilunak, pasadizo sa- murrekin trebezia uztartzen dituztela. 2014an aurkeztu zuten euren lehen diskoa, "Perlak" izeneko.

THE LOOKERS

The Lookers banguardiako Garage Rocka egiten duen



Joseba Baleztena musikaria, Joseba B. Lenoir.

Musikazuzenean atari digitalaren aldeko festa Andoaingo gaztetxean, ostiral honetan

hirukote gaztea da. Eskola zaharreko Garage Punk eta Rock Alternatiboarekin ere dute hartu emana. Generazio ezberdinetako jendeak era- kartzeko gai izan dira haien benetako zuzenekoekin. The Sonics, Shadows of Knight, New York Dolls. Pixies, Black Lips edo Ty Segall be- zalako taldeak gogoko dituz- te.


JOSEBA B. LENOIR GANG

Joseba Baleztena musikaria 2011n hasi zen bakarlari gisa Sexty Sexers taldearen etenaldi batean. Joseba B. Lenoir izena hartu zuen orduan. Egun, bere "gang"-a sortu du, hainbat mu- sikari finez inguratuz: Willis Drummond taldeko Felix Buff baterian eta Xan Bidegain ba- xuan eta perkusioetan, eta Na- poka Iria taldeko Miren Nar- baiza gitarra elektriko eta akustikoan, perkusioan eta ahotsean, eta Ander Mujika gi- tarran eta ahotsean. Rock bizia jotzen dute, blues eta america- na melodiekin nahasirik.

Gipuzkoako Bertsolari Txapelketa 2015, final zortzirenak

Txapelketako azken final zortzirena, Basteron

Gipuzkoako Bertsolari txapelketaren lehen faseari amaiera eman- go diote urriaren 11n, Basteroko auditorioan. Sei saio izango dira "atariko" moduko- ak, final laurdenetan eskar- mentu handiko bertsolariak parte hartzen hasiko baitira. Ez baita ahaztu behar sailkapen fasea maiatza eta ekaina bitar- tean jokatu zela Gipuzkoako hainbat herritan. Elkartearen- tzat "bertsolari berriak oholtza- n trebatzeko balio izan zuen, bai- ta Gipuzkoako bertsolaritzaren bizitasuna agerian uzteko ere". Andoaingo saioan batek baino gehiagok txapelketan aurrera- bidea egin dezake. Sarrerak bertsozale.eus webgunean eskuragarri daude.



Aukazalea: Iratxe Lizasoain Arantzadi



KIROL ALBISTEAK

Alex Txikon Urnietan hizlari

Larunbat arratsaldean Alex Txikon kirolari ezagunak hitzaldia eskainiko du Urnietako Lekaion. Arratsaldeko 18:30ean hasita “Mendi bizi-penak” izenburupean, bere ibilbideko gorabeherak azalduko ditu. Lemoan jaioa, Himalayako eta mundu zabaleko gailur handienetan trebatu da. Tarteka, aizkolari lanetan ere jardun du. Bere izaera eta ibilbidea ezagutzeko aukera paregabea izango da, Udalaren eta Zanpatuz taldearen eskutik.



Kirolari ezagunak hitzaldia eskainiko du Lekaion, arratsaldeko 18:30ean hasita.

Kriteriuma Urnietan

Txirrindularitza azkarra, bizia eta sprintaz beterikoa izango da Urnietan larunbat honetan ikusi ahal izango dena. Iazko bideari jarraituz, aurtengo jaieran Urnietako II. Kriteriuma jokoan izango da jubenil, elite eta 23 urte azpiko txirrindulariekin. Besteak beste, Andoaingo jubenilak bertan izango dira. Arratsaldeko 16:00etan hasiko da, 18:30ak arte. Poxta Zahar elkarteak antolatu du.



Jubenil, elite eta 23 urte azpiko mailako kriteriuma 16:00tan hasiko da.

Bizikleta irteera Ollokira

Andoaingo txirrindulari eskolak adiskidetasunezko irteera-ekin amaiera emango dio denboraldiari. Larunbat honetan goizeko hamarretan irtengo dira Goikoplazatik, bizikletan Olloki aldera iristeko. Irteera-taldeko kide, adiskide eta herrikideak oro har gonbidatuta daude. Betebehar bakarra dago, kaskoa eramatea. Hamaketakoa hartu eta gero, 12:30ak aldera iritsiko dira Goikoplazara.

BALORAZIOA ETA ESKERTZA

Webgunean mezua zabaldu dute, denboraldiaren balorazioa eginez eta talde osoaren lana eskertuz: “Bukatu da denboraldia. zikloroseko denboraldi bikaina egin zuen **Jokin Alberdik** Gipuzkoako, Euskadiko eta Espainiako txapelketak irabaziz beste lasterketaz gain.

Errepideko denboraldian, bikain ibili dira gure txirrindulariak, **Peio Manterolak** Mutrikun eta Zumaian irabazi zuen, azken honetan Euskadiko txapel-



Jubenil mailakoak aurreko irailaren 19an taldeka onenak izan ziren, beste behin ere.

keta irabaziz. **Ander Amonarri** zek Andoainen irabazi zuen Gipuzkoaki Itzuliko etapa eta **Koldo Velasco** Arantzazun izan zen garaile. Jubenilen mailan taldeka ere lasterketa askotan lortu dute lehen postua. Alebin mailan ere oso ondo ibili ziren gure txirrindulariak. Zorionak ekipoko txirrindulari eta teknikariei”.

JUBENILAK

Larratxo, irailak 19:

1. Oier Ibaguren A.Sanz
 2. Eukén Gallego Laguntasuna
 3. Koldo Velasco Andoaingo
 6. Ander Amonarri Andoaingo
 10. Peio Manterola Andoaingo
- Taldeka irabazle.

Urnieta, urriak 3:

Jubenilak bertan izango dira.

Arregi bigarren doa Frantziako ziklo kros kopan



Frantziako Gornac herriko ziklo kros lasterketan Arregi andoaindarra hirugarren sailkatu zen. Hango lasterketak kontutan hartuta, aldiz, sailkapen orokorrean bigarren postuan doa.

Arregi, Herbreteau eta Pasquet txirrindulariek osatu zuten podiuma. Arregi anaiek aurreko urteetan denboraldi politak burutu dituzte ziklo krolean, eta aurreko bide beretik doazela dirudi.

Saski denboraldia hastear

Asteburu honetan senior, jubenil eta infantil mailako taldeak martxan jarriko dira.

SENIORRAK ALLURRALDEN

Ganbara-Ordizia

Larunbata, 3. 19:15.

Futbol emaitzak

ERREGIONAL OHOREZKOA

3. jardunaldia:

Hondarribia 3-3 Euskalduna

Sailkapena:

- | | |
|---------------|---------|
| 1. Mutriku | 9 puntu |
| 2. Tolosa | 9 puntu |
| 4. Euskalduna | 7 puntu |

4. jardunaldia:

Euskalduna-Touring

Urriak 3, larunbata. 16:30.

PREFERENTE

2. jardunaldia:

Urnieta 3-0 Martutene

Sailkapena:

- | | |
|------------------|---------|
| 1. Trintxerpe | 6 puntu |
| 2. Urnieta | 6 puntu |
| 3. Sanpedrotarra | 6 puntu |

3. jardunaldia:

Deusto-Urnieta

Urriak 3, larunbata. 16:00.

Kontsejupeko finalak



Unai Barberena, Pedro Elosegi eta Ander Ezenarro dira aurtengo irabazleak.

“Korrikalaris a tope”ren busa Behobia-Donostiara

Urnietako taldeak Behobia-Donostia lasterketara joateko doako autobusa antolatu du. Interesatuek izena emateko harremanetan jarri behar dute, izen-abizenak eta telefono zenbaki bat adieraziz, “izen ematearen ordena kontuan hartuko da.

Lehen autobusa bete eta jende nahikoa egonez gero, bigarren bat antolatzeke aukera egongo da. Bigarren hori ordaindu egin beharko litza-teke”.

Izen-ematea: korrikalarisatope8.0@gmail.com
635 747 004

Oharra: Biltzar argitaratzaileek ez dute beregain hartzen aldizkarian adierazitako esanen eta iritzien gaineko erantzukizunik.

Oharra: Biltzar argitaratzaileek ez dute beregain hartzen aldizkarian adierazitako esanen eta iritzien gaineko erantzukizunik.



Ekoizlea:



Laguntzaileak:



Aldizkari honek bi udalerrri hauen dirulaguntza jasotzen du:



Argitaratzailea:



Aiurri eskuragarri:

Etkez etxeko harpidetza-sistema. Andoainen urte osoko harpidetza-saria 35 eurokoa da. Urnietan, 30 euro. Ale batzuk eskuragarri kiosko eta merkatalguneetan.

Egoitza Orokorra:

Arantzibia plaza, 4/5-behea. 20140, Andoain. Tel.: 943 300 732. Faxa: 943 300 731. @: andoain@aiurri.com. **Webgunea:** www.aiurri.com

Zuzendaria:

Jon Ander Ubeda. andoain@aiurri.com. **Erredaktoreak:** Xabier Lasa, Joxeba Lizeaga, Izarne Olano eta Jon Unanue.

Diseinua:

Maddi Trutxuelo eta Jon Ander Ubeda. diseinua@aiurri.com. **Publizitatea:** Fernanda Irazu. publizitatea@aiurri.com

Zorion agurrak, merkatu txikia:

diseinua@aiurri.com. www.aiurri.com. **Lege Gordailua:** SS-1078/04. **ISSN:** 1698-4870. **Tirada:** 4.000 ale.

Kudeatzailea, banaketa arduraduna:

Garbiñe Ugartemendia. idazkaritza@aiurri.com. Tel.: 943 300 732

Banatzailak:

Mikel Arregi (Andoain), Garazi Usandizaga (Urnietan). **Inprimategia:** Zeroa Multimedia. Huarte-Iruñea.

Agenda

URRIAREN 1ETIK AUERRERA • AGENDAN IRAGARTZEKO: andoain@aiurri.com

Zinema

Andoain, Bastero

- **Reina y patria.** Larunbata, 3. 19:30/22:00. Igandea, 4. 19:30. Astelehena, 5. 19:30/22:00. Haur eta helduentzat: **Del reves.** Larunbata, 3. 17:00. Igandea, 4. 17:00.

Hitzaldia

Andoain

- "Errefuxiatuak, zer ari da gertatzen Europan? Errefuxiatuen egungo egoera ulertzeko gakoak" izenburupean, hitzaldia. 11:00. Irunberri. Urriak 3, larunbata.

Tailerra

Andoain, Gazte Lokala

- Bufandak egiteko tailerra. Urriak 1 eta 2. 18:00.

Ikastaroak

Urnietan

- Lekaio kultur etxeko ikastaroak: Joskintza, makilaia, sendabelarrak, euskal kantagintza, argazkilaritza digitala, Feng-shui eta zur taila. Izen ematea, Lekaion: Urriaren 9ra arte. harrera@urnieta.eus.
- Antzerki tailerrean izena emateko aukera zabalik. Ikasturtea urriaren 9an abiatuko da, Saroben. Tailerra ostiralero burutuko da, 19:00etatik 21:00etara.

Farmaziak

Eskualdea

- Guardiako farmaziak. **Andoain:** Arzallus, asteburu osoa. **Urnietan:** Aguado, Astigarragan. Kale nagusia, 21. **Eskualdea, gauzez:** Etxebeste. Elkano, 9. Hernani.

Bilera

Andoain

- Andoaingo langabetuen bilera irekia. Gabriel Aresti Kanean Activate elkarteak daukan egoitzan. Herriko Kontseiluak antolatuta. 10:30. Urriak 2, otirala.

Bilkurak

Urnietan

- Jubilatuen elkarten deialdiari erantzunez, pentsio duinen aldeko bilkurak. 19:00. San Juan plaza. Urriak 1, osteguna. 12:00. Donostia. Urriak 3, larunbata.

Andoain

- "Parte hartze hariak lotuz", bilera sorta auzoz auzo. Hitzordu guztiak astekariko lehen orrialdean. Urriaren 6tik 8ra eta 13tik 15era.

Auzolana

Andoain

- Auzolanean ibaia garbitzeko deialdia urriaren amaiera aldera atzeratu dute. Urriak 31, larunbata.

Erakusketak

Andoain, Bastero

- "Itsaspeko bihotzak" hurrei zuzenduta. Azken eguna: urriak 2.
- "Bizibideak", Gartxot Arregiren eskutik. Ogibide ezberdinei buruzko autoerretratuak. Urriaren 9tik aurrera.

Deialdia

Andoain

- Caritas elkarteak irakasle boluntarioak behar ditu, laguntza klaseak emateko. Bi saio astero, ordu ta laurdenekoak. Urrian hasteko. caritasandoain@yahoo.com

Jaiak

Urnietan

- Sanmielelako azken txanpa asteburuan. Egitaraua, erdiko gehigarri berezian. Urriak 2, 3 eta 4.
- Xoxokako jaiak, astearen hasieran eta amaieran. Urriak 5, 6, 10 eta 11.

Antzerkia

Urnietan, Sarobe

- "Ongi etorri pottoki" Urriak 2, ostirala. 18:30. Doan.

Kilometroak

Usurbil

- "Gattunk" lemapean, euskararen jaia. Urriak 4, igandea.

Dantza

Andoain, Bastero

- "Ilargiaren malkoa", Haatik konpainiaren eskutik. 21:30. Auditorioa. Urriak 9, ostirala.

Euskara

Andoain

- AEKk jakinarazi nahi du matrikulazio garaia zabalik dela. Extremadura Kalea, 5. 943 59 17 04.
- Mintzodromoa Andoainen. 12:00. Juanita Alkain plaza. Urriak 3, larunbata.

Lehiaketa

Andoain

- Bidaien inguruko informazioa partekatzeko, 12-18 urteko gazteen mailako "Gomendatzen dizut..." lehiaketa. Gomendio bat idatzi beharra dago, argazki batez lagunduta. Parte hartzeko: gibandoain@gaztelokala.com Saria: 60 euro. Epea: Urriak 31, larunbata.

ZORION AGURRAK

ZORIONAK



Enekok irailaren 30ean 10 urte bete zituen. Segi hain jator eta irrifartsu. Etxekoen partez muxu poto-loak. Zorionak potto!

ANDOAIN


ZORIONAK



Gure **Maddi** txikiak 3 urte bete zituen irailaren 29an, eta etxekoekin ederki ospatuko dugu. Txokolatezko muxu goxoak, printzesil!

ANDOAIN

ZORIONAK



Odei Elizegigure surfistak, irailaren 28an 10 urte bete zituen. Zorionak! Zorte onolatuekin. Andoaingo lagunak.

ANDOAIN

ZORIONAK



Imanol Usandizagak 17 urte beteko ditu urriaren 10ean. Zorionak txapeldun! Ondospatu zure eguna. Muxuak, etxekoak.

ANDOAIN

Gazte Informazio bulegoa

Andoaingo Gazte Informazio Bulegoak martxan jarri duen zerbitzuarekin, interesatuek Whatsapp aplikazioaren bidez jasotzeko aukera izango dute: jarduerak,

lehiaketak, lan eskaintzak... Izena emateko: • 943593911 • gibandoain@gaztelokala.com • Gazte Informazio Bulegoa, Pio Baroja 1 behea.

Xoxokako jaien hasiera

Urriak 5, astelehena

- 12:00 Festen hasiera.
- 12:30 Telleria eta Mugerza anaiak, Elustondo trikitilariak.
- 14:00 Bazkaria Irazu eta Egañarekin Adarra jatetxean. Txartelak bertan salgai.
- 21:00 Afaria Xoxokako eskolan.
- 23:00 Elustondo trikitilariak.

Urriak 6, asteartea

- 17:00 Egues baserriko Elolaren idiak. Joxe Barriolaren idien aurka. 20 minutuko saioa 1.400 kiloko harriarekin.
- 20:30 Zahagi-ardoa Xoxokako eskolan. Jatekoa bakoitzak berea eramanda. Edaria doan.
- 23:00 Gau sorpresa.

